



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna  
Igualdad

## Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala Consejo Sectorial para la Igualdad

<b>Deialdia egin duena</b> Convoca	<b>Donostiako Udala</b> Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
<b>Data, tokia eta ordua</b> Fecha, lugar y hora	<b>2016ko urriak 19/</b> 19 de octubre de 2016 <b>Urgull Sala, Udaletxea</b> / Sala Urgull. Edificio Consistorial <b>18:00etan</b> / A las 18:00 horas
<b>Amaiera ordua</b> Hora de finalización	<b>20:05etan</b> / A las 20:05 horas

### GAI-ZERRRENDA:

#### ORDEN DEL DÍA:

<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Aurreko aktaren onarpena.</b></li> <li>2. <b>Irailetik abendurako Kontseiluko egutegia.</b></li> <li>3. <b>"11 historio feminista" ikerketa beka</b></li> <li>4. <b>Kontseiluko indarkeria batzordearen azalpenak</b></li> <li>5. <b>Berdintasun sailaren aurrekontuari buruzko informazioa</b></li> <li>6. <b>Besterik</b></li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aprobación del acta anterior</li> <li>2. Presentación KlimaDSS2050</li> <li>3. Beca de investigación "11 historio feminista"</li> <li>4. Información sobre la comisión de violencia machista del Consejo</li> <li>5. Información sobre el presupuesto del Servicio de Igualdad</li> <li>6. Varios</li> </ol>
---	--

### BILERAN PARTE HARTU DUTE:

#### HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

<b>KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA</b> PRESIDENCIA DEL CONSEJO	<b>PSE-EE (Duñike Agirrezabalaga) Auzoetako eta deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria</b> PSE-EE (Duñike Arrizabalaga) Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación
<b>TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK</b> REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>EH BILDU</b></li> <li>2. <b>IRABAZI - GANAR DONOSTIA</b></li> <li>3. <b>PSE – EE</b></li> <li>4. <b>EAJ - PN</b></li> </ol>

<b>HERRITARREN ELKARTE ETA BERDINTASUNAREN ARLOAN GIZARTE-OSPE BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK</b> ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD	<b>1.- ASADE Elkartea / Asociación ASADE</b> <b>2.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE</b> <b>3.- Emak. Bananduen Elkartea / Asociación de mujeres separadas</b> <b>4.- ERNE</b> <b>5.- ARRATS Elkartea / Asoc. ARRATS</b> <b>6.- ELKARTU ( Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa</b> <b>7.- Haurralde Fundazioa</b> <b>8.- Plazandreak</b> <b>9.- Dandai</b> <b>10.- 1. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1</b>
<b>EZ DIRA ETORRI ETA/EDO DESENKUSATU DIRA</b> EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON	<b>1.- EMAKIN</b> <b>3.-INTXAURRONDO BERRI</b> <b>4.-FORO MUJERES Y CIUDAD</b> <b>5.-Donostiako Berritzegunea</b> <b>6.- LAB</b> <b>8.- PP</b>
<b>UDAL TEKNIKARIAK</b> CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL	<b>Agente de Igualdad</b> Irene Ormazabal  <b>Jefa de Sección</b> Silvia Carballo
<b>PARTAIDETZAREN DATUAK</b> DATOS DE PARTICIPACIÓN	<b>13 BKSeo pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Berdintasuneko zinegotzia, aholkularitza teknikoko ordezkari 2, idazkaritza tekniko lanetan.</b>  <b>Emakumezkoak / Mujeres = 16</b> <b>Gizonezkoak / Hombres = 0</b>  13 personas integrantes del CSI, además de la Concejala delegada de Igualdad, y 2 representantes del cuerpo técnico municipal como secretaria técnica
<b>KONTSEILUKO IDAZKARITZA:</b> SECRETARÍA DEL CONSEJO	<b>Berdintasun Bulegoa</b> - Negociado de Igualdad : Emakumeen Etxea, Okendo 9 / 943 48 34 64 / <a href="mailto:berdintasuna@donostia.eus">berdintasuna@donostia.eus</a>

**SAIOAREN BILAKAERA:**  
**DESARROLLO DE LA SESIÓN:**

Gai zerrendarekin hasi baino lehen, Irabaziko ordezkariak Donostian prostituzioa iragartzen duen kartela erakutsi du. Bertaratu diren zinegotziek udaltzaingoaren arduraduna den zinegotziari bidaltzea erabaki dute.

Irabazik berdintasuneko udal ordenantza proposamena erregistratuko duela jakinarazi du. Berdintasuneko zinegotziak esan duenez, berdintasuneko sailean gaia lantzen ari dira, idazkaritza juridikoarekin batera.

EH Bilduko ordezkariak Irabazik aipatu dituen bi gai horiek oso garrantzitsuak direla adierazi du eta Kontseiluari erabaki bat hartzeko eskatu dio.

**1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea**

ASADEk eskatu du Asade sindikatua eta Asade elkarte bereizteko; izan ere, bataren zein bestearen ordezkariak ere desberdinak baitira. Zuzenketa ontzat eman da eta akta onartu egin da.

**2. KlimaDSS2050 ren aurkezpena**

Ingurumeneko zuzendaritzako teknikari batek aurkeztu du proiektua. Klima aldaketaren aurkako hiriaren estrategiari dagokio eta aholkularitza kontseilu guztiak inplikatzeko nahi dute. Azaroan, batzarra egingo da eta gai horretaz interesatuta daudenei batzarrera joateko eskatu die. Deialdia bidaliko dute.

Taldearen helburua Parisen 2015eko abenduan egin ziren klimaren hitzarmenak gauzatzea da, eta eskaini dituzten datuen arabera, atmosferako CO2aren kontzentrazioa izugarri handiagotu da azken hamarkadetan, gizakien eraginaren ondorioz. Donostian, hiriak dituen ezaugarriengatik, klimaren bilakaera oso nabarmena da (mendebaletan izaten diren olatuak, etab.) eta egokitzapeneko plana idazten ari dira, datozen urteetako hondamenak aurreikusteko. Ezarritako helburua isuriak % 80 murriztea da 2007 urtea erreferentziatzat hartuta, eta horretarako, hiri osoak parte hartu behar du eta erronka hori aukera bilakatu behar da.

KlimaDSS2050 estrategia denon artean eraikitzea da, konpromiso partekatuak hartuz, esku hartzeko eremu fisikoak zein birtualak erabiliz eta hiritar guztiak errokatuz.

Informazio gehiago:  
[www.donostia.eus/klima](http://www.donostia.eus/klima)  
[ingurumena@donostia.eus](mailto:ingurumena@donostia.eus)

Antes de comenzar propiamente con el orden del día, la representante de Irabazi muestra un cartel que anuncia prostitución en Donostia. Las concejalas presentes quedan en remitírsele al concejal responsable de la guardia municipal.

Irabazi anuncia también que va a registrar una proposición de ordenanza municipal de igualdad. La concejala de igualdad replica que en el departamento de igualdad ya se está trabajando en el tema, con secretaría jurídica.

La representante de EH Bildu afirma que los dos temas que ha señalado Irabazi le parecen muy importantes, y pide un pronunciamiento al Consejo.

**1. Aprobación del acta del Consejo anterior**

ASADE pide que se diferencien en todas las actas Asade-sindicato y Asade-asociación, que además, tienen representantes distintas. Se acepta la corrección, y se aprueba el acta.

**2. Presentación KlimaDSS2050**

Una técnica de la Dirección de Medio Ambiente presenta el proyecto. Se trata de la estrategia de la ciudad contra el cambio climático, en la que quieren implicar a los consejos asesores. En noviembre se realizará una reunión a la que anima a acudir a quienes tengan interés en el tema. Enviarán la convocatoria.

El objetivo del grupo es materializar los acuerdos climáticos de París (diciembre 2015) y se ofrecen datos que muestran que la concentración de CO2 en la atmósfera se ha disparado en las últimas décadas, debido a factores antrópicos. En Donostia, por sus características, la evolución del clima es muy visible (temporales de olas, etc.) y ya se está redactando un plan de adaptación, para prevenir desastres en los próximos años. El objetivo marcado es una bajada de las emisiones del 80% con respecto a 2007, y para ello toda la ciudad ha de ser partícipe, y hacer de este reto una oportunidad.

La estrategia KlimaDSS2050 debe ser una construcción colectiva, con compromisos compartidos, que combine espacios físicos y virtuales para la participación, y cuyo reto sea asumido por toda la ciudadanía.

Para más información;  
[www.donostia.eus/klima](http://www.donostia.eus/klima)  
[ingurumena@donostia.eus](mailto:ingurumena@donostia.eus)

Plazandrokeko ordezkariak gai interesgarria dela eta ekofeminismoak ekarpen asko egin ditzakeela esan du.

### 3.- "11 historiko feminista" ikertzeko beka

EH Bilduko ordezkariak gai hor ekarri du, zeren, adierazi duenez, batzordeetan ez baitu erantzun egokirik jaso; horregatik, Udalbatzari eskaera egin zioten Kontseiluko gai zerrendako puntuetako izan zedin eta, han, talde gehienek kontrako botoa eman zuten. Galdera hau da: zer gertatu da bekarekin eta zergatik ez da argitaratu?

Berdintasuneko zinegotziak esan duenez, informazioa eman zion dagoeneko batzordean eta Plenoan kontrako botoa ematearen arrazoa azaldu du: bere ustez, hori ez da era egokia Kontseiluaren gai zerrendan puntu hori sartu dadin eskatzeko; horretarako nahikoa da sailari eskatzea eta sailak Batzorde Iraunkorrera eramango du.

Asade sindikatuaren ordezkariak galdetu du ea nork egiten duen gai zerrenda, zeren gai bat Batzorde Iraunkorrean tratatu baitzen, gai zerrendan sartuta ez egonagatik. Kontseiluko idazkariak erantzun du eta adierazi duenez, gai zerrenda Batzorde Iraunkorrak zehazten du eta puntu hori Batzorde Iraunkorrean eztabaidatu zen, baina ez zen gai zerrendan sartu, inork ez zuelako proposatu. Hala ere, Bestelakoak deritzon azken atalean eztabaidatuko da, galde-eskeetan.

Atalburuak azaldu duenez, ikertzeko II. beka horren deialdia lehenbizikoaren arrakastaren ondorioz egin zen. Lehen beka Deustuko Unibertsitateko ikertzaileen talde bati eman zion epaimahai batek. Epailen iritziz haien proiektua izan zen onena aurkeztu zirenen artean. Hala ere, zalantzak izan ziren hasieratik, zeren proiektuak ez baitzituen helburuak erabat betetzen. Ikertzaileek proiektua aldatzeko konpromisoa hartu zuten, baina, zenbait zuzenketa eginda ere, lanak ez du gutxieneko mailarik eta ez da argitaratuko. Prozesu neketsua izan da, talde teknikoak eta epaimahaiak frustrazioz bizi dutena eta eskarmentua hartzeko balioko diotela uste dute, gerora horrelako akatsik ez egiteko berriz ere.

Haurraldeko ordezkariaren iritziz, lehiaketa irabazlerik gabe utzi behar zen. EH Bilduko ordezkariak azaldu duenez, informazioa tartean dagoen pertsona batek bidali zion, baina bere ustez akats nabarmena da Kontseilua kontuan ez hartzea. Halaber, eskatzen denean informazio gehiago ematea eskatu du. Plazandrokeko ordezkariak ikerketa planteatzeko era kritikatu du.

La representante de Plazandreak dice que es un tema muy interesante, y que el ecofeminismo tiene mucho que aportar.

### 3.- Beca de investigación "11 historio feminista"

La representante de EH Bildu trae este tema, ya que afirma que en las comisiones no recibió una respuesta satisfactoria, por lo que llevó a Pleno del Ayuntamiento la petición de que se incluyese como punto en el orden del día del Consejo, donde la mayoría de grupos votó en contra. La pregunta es qué ha sucedido con esta beca, y por qué no se ha publicado.

La concejala de igualdad afirma que ya le dio la información en la comisión, y que en el Pleno votó en contra, porque no le parece que ésa sea la manera de pedir que se incluya un punto en el orden del día de Consejo, para lo cual basta con pedirlo al departamento, y éste lo llevará a la Comisión Permanente.

La representante de sindicato Asade pregunta quién elabora el orden del día, ya que hubo un punto que se trató en la Comisión Permanente, pero no se ha incluido en el orden del día. La secretaria del Consejo responde que el orden del día lo define la Comisión Permanente, y que ese punto se debatió en CP pero no se incluyó en el orden del día, porque nadie lo propuso. Aún así, se va a debatir en el último apartado, Varios, ruegos y preguntas.

La jefa de sección explica que esta II Beca de investigación, que se convocó tras una primera experiencia que fue muy satisfactoria, fue concedida por el tribunal a un equipo de investigadoras de la universidad de Deusto, cuyo proyecto fue el más valorado de los que se presentaron, aunque hubo dudas desde el principio, ya que no se adecuaba completamente a los objetivos. Las investigadoras se comprometieron a modificarlo, pero el trabajo realizado, pese a diversas correcciones, no se ajusta a la calidad mínima que se considera necesaria, por lo que no se va a publicar. Ha sido un proceso complicado, que el equipo técnico y el tribunal han vivido con frustración, y del que esperan aprender para no volver a cometer errores similares en el futuro.

La representante de Haurralde opina que el concurso se tenía que haber dejado desierto. La representante de EH Bildu explica que le llegó la información por una persona implicada, pero que le parece un error considerable no haber tenido en cuenta al Consejo. Así mismo, pide que se ofrezca más información cuando se pide. La representante de Plazandreak critica la forma en que se ha planteado la investigación.

Berdintasuneko zinegotziak esan duenez, prest dago kritikak eta proposamenak jasotzeko ideia berreskuratzeko asmoz. Hala ere, azpimarratu duenez, bera zinegotzi karguan hasi zenean proiektua oso aurreratua zegoen. Haurraldeko ordezkariaren iritziz, agian ez dago zertan beka ateratzeari uztea, aski da irizpideak aldatzea edo hobetzea, horrelako arazorik sortu ez dadin.

#### **4.- Kontseiluko indarkeria matxistaren aurkako batzordeari buruzko informazioa**

Udalaren III. Berdintasun Planaren barruan indarkeria matxistari dagokiona aztertzen ari dira. Haurraldeko ordezkariak adierazi duenez, Berdintasun Planean adierazle kualitatiboak falta dira.

#### **5.- Berdintasuneko Zerbitzuaren aurrekontuari buruzko informazioa**

Berdintasuneko zinegotziak azaldu duenez, sailak euren proposamenak egiten ari dira aurrekontuetako saillean eta gobernuak oraindik ez du proposamenik egin. Berdintasuneko sailaren 2016ko aurrekontua banatu da eta zinegotzia prest dago egiten diren ekarpenak entzuteko. Gobernuaren proposamenari buruz, oposizioak zuzenketak egin ahal izango ditu eta hortik behin betiko aurrekontua aterako da.

Haurraldek ekarpenak jasotzeko epeari buruz galdetu du. Berdintasuneko zinegotziak 3 asteko epea proposatu du eta berriro azaldu ditu aurrekontuak dauzkan kapituluak eta egiten den prozesua.

Berdintasuneko teknikariak aurrekontuak genero ikuspegiaren arabera nola lantzen den azaldu du. Dagoeneko, aurrekontuen analisiaren 2 txosten egin dira eta aurten estuago lanean ari dira aurrekontuetako sailarekin, aurrekontuen ziklo osoan eragina izateko asmoz. Berdintasuneko sailatik gomendioak egiten ari dira gainerako sailek egiten dituzten proposamenak buruz. Aurrekontuaren proposamenarekin batera aurkeztuko den txostena egiten denean, Kontseiluan jakinaraziko da.

Bere burua ordezkatzuz parte hartzen duen emakumeetako batek aurreko urteekin alderatzea eskatu du, erreferentziaren bat izateko. Plazandrokeko ordezkariak sailen berdintasuneko proposamen horiek zein diren eta zeintzuk onartu eta zeintzuk baztertu diren jakin nahi du. Berdintasuneko zinegotziak erantzun du inoiz ez direla barneko eztabaidak publikoki jakinarazten. Plazandrokeko ordezkariak berriro dio berdintasuneko legearen arabera nahitaezkoa dela eta aurkeztu diren kontrako jarrerak premiazko informazioa direla.

La concejala de igualdad se muestra abierta a escuchar las críticas y las ideas para retomar la idea, aunque subraya que es un proyecto que ella se encontró avanzado a su llegada a la concejalía. La representante de Haurralde opina que quizás no hay que dejar de sacar esta beca, sino cambiar o mejorar los criterios, para que no haya este tipo de problemas en el futuro.

#### **4.- Información sobre la comisión de violencia machista del Consejo**

Están analizando lo relativo a violencia machista en el III Plan de Igualdad del Ayuntamiento. La representante de Haurralde señala que faltan indicadores cualitativos en el Plan de Igualdad.

#### **5.- Información sobre el presupuesto del Servicio de Igualdad**

La concejala de igualdad explica que los distintos departamentos van elevando sus propuestas al departamento de presupuestos, y que aún no se ha elaborado la propuesta del gobierno. Se reparte el presupuesto del departamento de igualdad relativo a 2016, y está dispuesta a escuchar las aportaciones que se hagan. Sobre la propuesta del gobierno la oposición podrá hacer enmiendas, y de ahí saldrá el presupuesto definitivo.

Haurralde pregunta por el plazo para recibir aportaciones. La concejala de igualdad propone un plazo de 3 semanas, y rexplica brevemente los capítulos en que se divide el presupuesto y el proceso que se sigue.

La Técnica de igualdad explica cómo se está haciendo el trabajo de presupuestos con perspectiva de género. Ya se han realizado 2 informes de análisis de los presupuestos, y este año se está trabajando de manera más estrecha con el departamento de presupuestos, intentando incidir en todo el ciclo presupuestario. Desde igualdad se están realizando recomendaciones sobre las propuestas que hacen los departamentos. Cuando esté el informe, que se presentará la mismo tiempo que la propuesta presupuestaria, se dará cuenta en el Consejo.

Una de las mujeres que participan a título individual pide una comparativa con respecto a los años anteriores, para tener una referencia. La representante de Plazandreak quiere conocer cuáles han sido esas propuestas de igualdad a los departamentos, y cuáles se han aceptado y cuáles no. La concejala de igualdad responde que nunca se hacen públicos los debates internos. La representante de Plazandreak insiste en que la ley de igualdad obliga y que conocer las resistencias que se presentan es una información pertinente.

EH Bilduko ordezkaria pozik dago lan teknikoaz jarraitzeagatik eta txosten horretan, aurrekontuak onartu baino lehen, gomendioak sartuko diren edo aurrekontuetako proiektuaren eranskina izango diren galdetu du, zeren hala bada, gomendioak ezin izango baitira kontuan hartu. Horrez gain, benetako zeharkakotasuna lortzeko asmoz, Ogasuneko sailera iristeaz gain ea zinegotzigo eta sail guztietara heltzen diren galdetu du. Berdintasuneko teknikariak erantzun dionez, aurrekontuetako sailarekin dagoen harremana ona da eta berdintasuneko ekarpen guztiak kontuan hartuko dira. Gomendioei dagokienez, gehienak epe ertain eta luzerako dira. Prozesu luzea da eta prozesu horren bidearen parte txiki bat baino ez dugu egin. Dagoeneko, aurrekontuak egin baino lehen gomendioak egin dira. Txostena aurrekontuen proiektuarekin batera bidaliko da eta eztabaidarako eta zuzenketak egin ahal izateko elementua izango da. Horrez gain, azaldu duenez, 3 txosten egin dira: lehenbizikoak, 2014koak, metodologia gomendioak dauzka eta gehienak kontuan hartu dira; bigarrena 2015eko aurrekontuen analisia da eta hark ere gomendioak dauzka; hirugarrenak, 2016ko aurrekontuari dagokionak, ziklo berrian kontuan hartzen diren gomendio orokorrak dauzka. Berdintasuneko sailaren ustez eragina izango du, zeren ez baitira tramitea betetzeko egiten diren txostenak.

Berdintasuneko zinegotziak adierazi duenez, erabiltzen ari diren metodologia eta aurrekontuetako sailean nola ari diren lanean kontuan hartuta, aurrerapauso handia eman dela uste du.

## 6.- Bestelakoak

### 6.1.- Etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzua.

Zerbitzu hori berdintasuneko planaren neurrietako bat delako abiatu da, etxeko langileen baldintzak hobetzeko eta zaintzeko atalaren barruan. Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen aholkularitzarekin, Juana Aranguren eta Ana Lopez abokatuak kontratatu dira eta zerbitzua ezagutarazteko komunikazio kanpaina egin da. Zerbitzua Emakumeen Etxean ematen da eta erantzun ona izaten ari da.

Asade sindikatuko ordezkariak adierazi duenez, urte asko daramatza lanean eta parte hartzen Kontseiluan eta zaintzaile profesionalak eta ez profesionalak (etxeko langileak barne), babesteaz arduratzen den zaintzaren inguruko talde motorrean eta iraingarria iruditzen zaio

La representante de EH Bildu se alegra de que se continúe con este trabajo técnico, y pregunta si en este informe se incluirán recomendaciones antes de aprobar los presupuestos, o si va a ser un anexo al proyecto presupuestario, con lo que las recomendaciones no se podrán tener en cuenta. Pregunta también si, a fin de alcanzar una verdadera transversalidad, se llega no sólo al departamento de Hacienda, sino a todas las concejalías y direcciones. La técnica de igualdad le responde que se tiene una buena relación con presupuestos, y que confía en que se tendrán en cuenta las aportaciones de igualdad. Respecto a las recomendaciones, la mayoría son a medio-largo plazo, se trata de un proceso largo, del que apenas hemos recorrido una pequeña parte. Ya se han hecho recomendaciones antes de elaborar los presupuestos. El informe se anejará al proyecto de presupuestos, que seguirá siendo una propuesta, y el informe será un elemento para el debate y de cara a las enmiendas. Explica también que, hasta ahora, se han realizado 3 informes: el primero, de 2014, tenía unas recomendaciones metodológicas que en su mayoría se tuvieron en cuenta; el segundo es un análisis de los presupuestos de 2015, que también incluye recomendaciones; el tercero, relativo a los presupuestos de 2016, tiene unas recomendaciones generales que se están teniendo en cuenta en este nuevo ciclo. El departamento de igualdad confía en que va a tener un impacto, no es son informes que se hagan por cumplir con el trámite.

La concejala de igualdad señala que, tanto por la metodología que se está empleando, como por la manera en que se está trabajando con el departamento de presupuestos, ya le parece que se ha dado un gran paso adelante.

## 6.- Varios

### 6.1.- Servicio de asesoría a empleadas domésticas.

Es un servicio que se ha puesto en marcha porque es una de las medidas del plan de igualdad, dentro del apartado de cuidados y mejoras de las condiciones de las empleadas domésticas. Con el asesoramiento de la Asociación de trabajadoras del hogar de Bizkaia, se ha contratado a las abogadas Juana Aranguren y Ana López, y se ha hecho una campaña de comunicación para dar a conocer el servicio. El servicio se ofrece en la Casa de las Mujeres, y está teniendo muy buena respuesta.

La representante del sindicato Asade afirma que lleva muchos años trabajando y participando en el Consejo y en el grupo motor de cuidados, que se dedican precisamente a la defensa de cuidadoras profesionales y no profesionales, donde están incluidas las



zerbitzu horren berri berdintasuneko teknikaren telefono deiaren bidez jakin behar izatea. Asaderen lana, bere ustez, desagertu egiten da, zeren zerbitzu hori zaintzaren inguruko talde motorraren bidez eskaini baitzen, Emakumeen Etxean doan emateko. Eta orduan horretarako aurrekonturik ez zegoela erantzun zitzaion. Halaber, protestatu egin du, zeren ziur baitago berdintasuneko teknikariek Asaderen lana ezagutzen dutela jakinda ere, Bizkaiko elkarte bati eskatu baitote aholkularitza. Horrez gain, ez du sute zerbitzua emango dutenak abokatuak izan behar direnik. Galdetu du ea zergatik ez den horren guztiaren berri eman Kontseiluan.

Berdintasuneko zinegotziak barka eskatu du minduta sentitu diren guztiei.

Arratseko ordezkariaren iritziz, zerbitzu bikoiztuen kasu bat da. Elkarrekin euren artean kontsultatzen dute, elkarlanean aritzen dira eta ez dute eredu neoliberal edo kapitalista baten arabera jarduten. Bere ustez, hori guztia Kontseiluarekin kontsultatu behar zen. Bere burua ordezkatzuz parte hartzen duen emakumeetako batek dioenez, ondo iruditzen zaio Bizkaiko elkartearekin hitz egin izatea, urte asko daramatzalako gai horretan lanean, baina gaizki iruditzen zaio Asade albo batera uztea. Horrez gain, abokatu horiek, eta ez beste batzuk, kontratatzeke erabili diren irizpideak zein izan diren jakin nahi izan du. Haurraldeko ordezkariarentzat Donostiako elkarteak ez dira egoki tratatuak izan.

Atalburuak erantzun dio esanez, sailak ezagutzen eta baloratzen duela ASADEren lana, baina kasu horretan, Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen gomendioak kontuan hartu zituela. Edonola ere, sailak autonomia du egin beharreko jarduerak proposatzeko, zinegotziaren onarpenarekin, eta zenbateko jakin batzuetatik behera, nahi duen edonor kontratatzeke eskumena duela. Bestalde, oso zaila da berdintasun sailean egiten den guztia kontsultatzea edo Kontseiluaren onarpena lortzea, zeren jarduera ugari egiten baitira.

EH Bilduko ordezkariaren ustez, Kontseilua kontuan hartu behar zen, ekarpenak jaso ahal izateko. Hemendik aurrera Kontseiluaren iritzia gehiago kontuan hartu behar dela uste du. Bestalde, bere iritziz, Emakumeen Etxean ematen diren zerbitzuak hobetu egin behar dira, ez hainbeste zerbitzu gehiago eman, baizik eta dagoena eta falta dena aztertuz. Halaber, proiektu horrek Donostia Lagunkoia proiektuarekin zerikusirik duen galdetu du.

empleadas de hogar, y le parece ofensivo haberse enterado a través de una llamada telefónica de una técnica de igualdad de que se iba a poner en marcha este servicio. Le parece que el trabajo de Asade queda invisibilizado, ya que ofreció a través del grupo motor de cuidados a hacerlo en la Casa de las Mujeres de forma gratuita, y se le dijo que no había presupuesto para ello. Protesta también porque le consta que las técnicas de igualdad conocen bien el trabajo de Asade, y sin embargo, han pedido asesoramiento a una asociación de Bizkaia. No está de acuerdo, además, en que tengan que ser abogadas quienes ofrezcan este servicio. Pregunta, así mismo, porqué no se ha dado cuenta de todo esto en el Consejo.

La concejala de igualdad pide disculpas a quien se haya podido sentir ofendida.

La representante de Arrats opina que le parece un caso de duplicidad de servicios. Las asociaciones siempre se consultan entre ellas, son colaborativas y no responden a un modelo neoliberal ni capitalista. Considera que se debería haber consultado esto con el Consejo. Una de las mujeres que participan a título individual dice que le parece bien que se haya hablado con la asociación de Bizkaia, que lleva muchos años trabajando en este tema, pero le parece mal que se haya ninguneado a Asade. Plantea, además, qué criterios se han utilizado para contratar a éstas abogadas y no a otras. La representante de Haurralde lo percibe como un maltrato institucional a las asociaciones de Donostia.

La jefa de sección responde que el departamento conoce y valora el trabajo de ASADE, pero que en este caso tuvo en cuenta las recomendaciones de la Asociación de Trabajadoras de Hogar de Bizkaia, y que en cualquier caso el departamento tiene autonomía para proponer la realización de actividades, con el visto bueno de la concejala, y que por debajo de determinadas cantidades tiene capacidad de contratar con quien le parezca más adecuado. Por otra parte, resulta muy difícil consultar o buscar el visto bueno del Consejo a todo lo que se realiza en el departamento de igualdad, puesto que son muchísimas actividades.

La representante de EH Bildu cree que habría que haber tenido en cuenta al Consejo, para recibir aportaciones. Cree que a partir de ahora hay que tener más en cuenta la opinión del Consejo. Por otra parte, cree que hay que ir más allá respecto a los servicios que se ofrecen en la Casa de las Mujeres, no tanto ofrecer más servicios, sino hacer una valoración de lo que ya hay, y ver qué falta. Pregunta también si este proyecto tiene relación con el programa Donostia Lagunkoia.

Arratseko ordezkariak adierazi duenez, Kontseiluaren bileren artean jarduera asko egiten direla egia bada ere, informazioa posta elektronikoa bidez bidali daiteke eta bere iritziz, sailean hainbat gaitan alde aurretik lanean ari diren elkarteak kontuan hartu gabe lan egiten da. Haurraldeko ordezkariari mina ematen dio horrelako gauzak gertatzea eta lehendik dagoen elkarte lanari gehiago erreparatzea eskatu du.

#### 6.2.- Azaroaren 25:

Haurraldeko ordezkariak indarkeriaren Batzordeak azaroaren 25erako manifestua egin dezan eskatu du, komunikabideetan ateratzeko. Berdintasuneko zinegotziak eskatu duenaren arabera, onena indarkeriaren batzordeak proposamena egitea, Kontseilura bidaltzea eta talde politikoen bidez lantzea da, testua bateratzeko. EH Bilduk proposatu duenez, urtero onartzen den adierazpen instituzionala Kontseiluarekin bateratu behar da eta irakurketa publikoan parte hartzea eskatu behar zaie.

#### 6.3.- Plan estrategikoa

Presidentea (Ana Arrieta) eta presidenteordea (Adegi) hautatu dira. Arratseko ordezkariak azaldu duenez, bere irizpidearen arabera eman zuen botoa: lehenbizikoan boto zuria eman zuen, ez zuelako ezagutzen eta bigarrenean kontrako botoa eman zuen, Adegiren hautagaitza ez baitzitzaion egokia iruditzen. Horrez gain, Ertzaintzarekin hitz egiteko eskatu zion Udalari, eraiketa matxista gertatu ondoren egiten diren manifestazioetan eragozpenik ipini ez dezaten.

Gizarte Kontseilua urriaren 25ean egingo da.

Haurraldeko ordezkariak jarduera guztiak berdintasuneko sailera bidaltzeko eskatu die elkarte guztiei, urtero argitaratzen den liburuxkan bildu daitezten.

#### 6.4. Hurrengo bilera eta Kontseilu Iraunkorra:

Hurrengo Kontseilua, azaroaren 30ean; ordua: 18:00 h.

Batzorde Iraunkorra, azaroaren 10ean; ordua: 18:00 h.

Bestelako aztergairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman dute 20:05etan.

Silvia Carballok hartutako akta.

La representante de Arrats afirma que, aunque es verdad que se realizan muchas actividades entre un Consejo y otro, se puede enviar información por correo-e, y opina que en el departamento se trabaja sin tener en cuenta a los colectivos que ya están activos en los diferentes temas. La representante de Haurralde se muestra dolida porque sucedan estas cosas, pide que se tenga más en cuenta al asociacionismo que ya existe.

#### 6.2.- 25 de noviembre:

La representante de Haurralde pide que se elabore desde la Comisión de violencia un manifiesto para el 25N, para sacar a los medios de comunicación. La concejala de igualdad pide que la comisión de violencia haga una propuesta, la mande al Consejo, y se trabaje desde los grupos políticos, para consensuar un texto. EH Bildu propone que la declaración institucional que todos los años se aprueba se consensúe con el Consejo, e incluso se les invite a participar en la lectura pública.

#### 6.3.- Plan Estratégico

Se han elegido los cargos de presidenta (Ana Arrieta, UPV) y vicepresidente (Adegi). La representante de Arrats explica que votó según su criterio, a la primera en blanco, porque no la conocía, y a la segunda en contra, ya que la candidatura de Adegi no le parecía adecuada. Pidió, además, que el Ayuntamiento mediara con la Ertzantza para que no se pongan trabas a las concentraciones cuando hay un asesinato machista.

El día 25 de octubre se celebrará el Consejo Social.

La representante de Haurralde pide a las asociaciones que manden todas las actividades al departamento de igualdad, para que se recojan en el folleto que se publica todos los años.

#### 6.4.- Siguierte reunión y CP:

Próximo consejo 30 de noviembre a las 18:00.

Comisión permanente 10 de noviembre a las 18:00.

No habiendo más asuntos que tratar, finaliza la sesión a las 20:05.

Acta recogida por Silvia Carballo.